

txi kitto!

ZALOA URAIN

**Kokein
taldearen
ahotsa**





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Txis teak

✓ Semeak amari:

- Ama, gaur ez dut eskolara joaterik nahi.

- Zer gertatzen zaizu, Aitor, seme maitea?

- Ba, hasteko logura naizela, gero aspertu egiten naizelako eta, azkenik, nire ileaz barre egiten dutelako.

- Ba, badakizu zer esaten dizudan? Joan egin behar duzula. Lehenengo eta behin zure eginkizuna delako, bigarrenik 35 urte dituzulako eta, azkenik, eskolako zuzendaria zarelako.



Fatima

✓ Matematikako irakasleak Arantxa atera du arbelera.

- Ea, Arantxa, praken poltsiko batean 50 euro badituzu eta bestean 100 euro...

- Uiii, ba beste baten baten prakak jantziko nituen orduan!



Irati

✓ Semeak aitari:

- Aita, handia egiten naizenean amonarekin ezkonduko naiz.

- Baina semetxo, nola ezkonduko zara, ba, nire amarekin?

- Eta zu ezkondu zinen, ba, nirearekin!



Anwar



✓ Bixentek, New Yorken zegoela, telebista erosi zuen familiari ekartzeko. Eta dendariak:



- Han, Euskal Herrian, ez dago telebistarik ala?
- Bai, noski, baina askoz politagoak dira hemengo programak.

Izei A.

✓ Bost urteko mutikotxoak asper-asper eginda zegoen amak etengabe behartzen zuelako eskuak eta aurpegia garbitzera. Egun batean lagun batekin topo egin eta esan zion honek:



- Ene! Ikaragarri hazi zara Jontxu!
- Jakina! Amak etengabe ureztatzen nau eta!

Lamiaa

✓ - Noiz jaio zinen zu?
- Ez dut oso ondo gogoratzen, baina larunbatean edo igandean jaio nintzela uste dut.
- Eta nola dakizu hori?
- Egun horretan ez nintzelako eskolara joan.



✓ Eta Manueltxok galdera hau egin zion amari oso txikia zenean:
- Ama, zuk non ezagutu ninduzun?

June Peribañez

Denborapasak

Animalia basatiak




PANTERA
ZEBRA
TIGREA
LEHOIA
LEOPARDOA

ELEFANTEA
JIRAFRA
TXIMINOA


Shalma Aghbalou eta Wissal Baya

Labirintoa



Ana Martinez de Musito

Jeroglifikoa



Anna Bati



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Libe Fernandez** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoan antzerkia ikusteko sarrerak eraman ditu Libek etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK ABENDUAK 5 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

Adina Tel.....


Denborapasak

Zazpi desberdintasunak




Eneko Esteibar eta Markel Esteban

Gurutzagrama



1. Margotzen duen pertsona.
2. Kotxeak konpontzen duen pertsona.
3. Umeei rakasten dien pertsona
4. Sukaldatzen duena.
5. Sua itzaltzen duena.
6. Jendea sendatzen duen pertsona.
7. Jendearen ilea moztu eta orrazten duena.
8. Garbitzen duena.



IZENA

ZALOA

ABIZENA

URAIN

JAIOTERRIA

EIBAR

JAIOTEGUNA

1976ko uztailak 17

- **Gazia ala gozoa?** Gazia.
- **Kolore bat?** Gorria, pasioa.
- **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.
- **Uda ala negua?** Uda.
- **Zenbaki bat?** 3.
- **Musika talde bat?** Pearl Jam.
- **Miresten duzun norbait?**
Bizi osoa lanean eta borrokan diharduten emakume ugari.
- **Umetako oroitzapen polit bat?**
Mendian gurasoekin.
- **Ametsetako oporrak nora?**
Ezagutzen ez dudan munduko edozein hiritara.
- **Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera?**
Musika, lagun min bat eta idazteko koaderno eta boligrafoa.

- **Birziklatzen duzu?**
Saiatu behintzat bai.
- **Euskara osasuntsu dago?**
Ez nahi beste.
- **Zer egin bultzatzeko?**
Maitatu eta erabili.
- **Zerk pozten zaitu?**
Maite ditudanen barreak.
- **Zerk haserretu?**
Gezur eta faltsukeriak.
- **Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia?**
Plastika, eta nerabezaroan filosofia.
- **Eta gutxien?** Fisika eta kimika.
- **Nolakoa da zure egun perfektua?**
Maite ditudanekin hondartzan.

- **Gogoan duzun egunik onena?**
Nire alaba jaio zen eguna.
- **Txistea entzun ala kontatu?**
Kontatzen oso txarra naiz, nahiago entzun.
- **Opariak jaso ala egin?**
Biak oso gogoko.
- **Jatekorik gustukuena?**
Arroza, milioi bat eratan.
- **Gutxien gustatzen zaizuna?**
Haragia.
- **Zer eskatuko diozu Olentzerori?**
Nik beti sorpresa, oso gogoko ditut.

ZALOA URAIN

Zaloa Urain irakaslea da Eibarko Aldatze ikastetxean eta, andereño izateaz gain, abeslaria ere bada. Kokein musika-taldeari ahotza jartzen dio, eta datozen egunetan aurkeztuko du taldeak disko berria: Lurpekhariä. Taldearen bosgarren diskoa izango da eta bederatzi abesti bildu dituzte lan berrian.

San Andres eguna da...

Laster datoz, bai, San Andres jaiak Eibarrera. Azaroaren 30ean ospatzen dugu egun haundi hori eibartarrok, baina aurreko egunetan ere izango dugu ondo pasatzeko aukera: eskolarteko bakailao-lehiaketa, Txistorraren Eguna, Luhartz taldearekin berbena... Ikusten duzuen moduan, hamaika aukera eskaintzen dizkigute sanandresek ondo pasatzeko.

Goizean goiz irekiko ditu atak San Andres azokak. 09.30erako prest egongo da eta bertan izango ditugu Eibar eta inguruetako baserrietako produktu bikainak: barazkiak, lore eta landareak, ogia, ezta... Eta Ego Gainen, berriz, Ganadu Erakusketa, hainbat animalia bertatik bertara ikusteko aukera paregabea.



Egun osoan izango da festa, bertsolariak, trikitalariak, kalejirak, erromeria, sari-banaketa...



Eta iazkoari jarraituta, Arrate Kultur Elkarteak 2. Argazki Rallya antolatu du San Andres Egunerako, 09:00etatik 14:00etara.

Haur eta helduek har dezakete parte, eta haurren kasuan bi maila izango dira:

0-9 urte: Sorpresa parte hartzen duten guztientzat.

10-16 urte: Irabazlearentzat 50 euro eta uretako argazki-kamera bat, eta bigarrenarentzat, berriz, uretako argazki-kamera bat.

Oinarriak eta gaiak Topalekuan banatuko dira egunean bertan, 09:00etatik 11:00etara.

11:30ean luntxa egongo da Topalekuan bertan.

Badakizue beraz, animatu zaitetze eta hartu parte!

SAN ANDRES 2. ARGAZKI RALLYA

Azaroak 30

9:00etatik-14:00era



SARIAK:

0-9 URTE:

Sorpresa denentzako.

10-16 URTE:

1.Saria: 50€ko trekea lkatzen eskutik eta Uretako Argazki Kamara bat.

2.Saria: Uretako Argazki Kamara bat.

-Oinarriak eta gaiak TOPALEKUAN banatuko dira egunean bertan 9:00etatik 11:00etara-
11:30etan LUNTXA Topalekuan.



Arrate Kultur Elkarteak





AMAÑA ikastetxetik gure baratzearen berri eman nahi dizuegu. Iraileko azken astean garbiketa egin eta udazkenerako prestatu genuen. Ikusten duzuen bezala, dagoeneko landatu ditugu hainbat gauza: azak, porruak, marrubiak eta ikusten ez diren haziak ere bai. Nahi duenak ikus dezake. Espero dugu janari goxoa jasotzea hemendik.

Urriaren 20an, **URKIZU** ikastetxeko 2. zikloko ikasleak Madariagako Dorrera joan ziren. Azaroaren 14an, bestalde, Gaztañerre Eguna ospatu genuen eskolan.



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko LHko 5. mailakoak Portaleara joan ziren “Tramankuluak ikasgelan” antzezlanaren ikustera, eta 3. mailakoek Ipuruako Ludoteka berria ezagutu zuten. Azaroaren 14an Gaztañerre ospatu genuen, abesti, bertso eta gaztaina artean. Azaroaren 18an LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek Goazen

telesailen aktoreak ezagutzeko eta eurekin solasaldia izateko aukera izan zuten eskolan bertan. Eta azaroaren 22 eta 23an, 5. eta 6. mailakoak Arotz Eneako barnetegian izan dira.




LA SALLE ikastetxean Agenda 21eko brigadak jarri ditugu martxan. Txipli-txapla igeriketa-ikastaroetan ere ibili gara eta 4. mailakoak Lurraskan izan dira.

ITURBURUN Animen Gauda girotzen

Azken urteetan Halloween ohiturak zabaltzen dihardu gure kale eta ikastetxeetan. Baina ikastolan ez dugu ahaztu nahi ANIMEN EGUNA ospatzeko bertako erak ere baditugula. Data horren inguruan, Iturburuko liburutegian saio bereziak prestatzen ditugu: ipuin beldurgarriak kontatu, irakurri edo asmatu. Argazkian 2. mailakoak agertzen dira; txotxongilo eta itzalekin pasarte beldurgarriak kontatu zituzten. Ederto pasatzen dugu horrelako jolasak egiten. Agian kaleetan mozorro-tutako batzuk aurkitu zenituzten hitz hauekin eskean: “Xanduli, manduli kikirriki, eman gozokiak guri”.





BIRZIKLATUTAKO MARGOAK

Birziklatzea zein garrantzitsua den guztiok dakigu. Eta zeinek ez du etxean margo zati txiki mordoxka bat? Zakarrontzira bota beharrea, hona hemen margo horiek birziklatzeko ideia polita. Margo bezala berrerabili ditzakezue edo baita apaingarri moduan ere. Kontuz! Eskulan honek labea behar du.

MATERIALA

- ✓ Margo zati zaharrak (plastidekorrak, argizarizkoak...)
- ✓ Silikonazko moldeak (izar, bihotz... itxurakoak)
- ✓ Labea



PAUSOAK

- 1.- Margo zatiak moldeetan sartu. Kolore bakarreko multzoak egin ditzakezu edo hainbat kolore nahastuta, norberaren gustuaren arabera. Laberaino eramateko film plastikoarekin estali ditzakezu moldeak, margorik eror ez dadin. Molde batzuetan purpurina ere bota dezakezue.
- 2.- Sartu moldeak labean (aldez aurretik berotuko dugu 200 gradutan), eta utzi 30-40 minututan. Atera eta hozten utzi.
- 3.- Kontu handiz atera moldeetatik eta hor dituzue margo berriak! Zotz batekin eta kontu handiz zulotxoak eginez gero, lepoko politak egingo dituzue.

Ti-ta!

TEKLAPOTEA

Kartoiarekin egin ezazu arkatzontzia. Ordenagailuaren teklatu zaharra hartu eta kendu teklak. Atzetik soberan duten zatia aliketekin moztu eta itsatsi teklak kartoiaren gainean. Hara hor teklapote dotorea! Etxean ditugun gauzekin birziklatua gainera!



OILASKO NUGGETAK



OSAGAIK (6 LAGUNENTZAT):

- ✓ Oilasko-bularki txikitua (bularki bakarrarekin 14 nugget irteten dira)
- ✓ Arrautza bat
- ✓ 2 moldeko ogi xerra
- ✓ Esne apur bat (ogia bustitzeko)
- ✓ Arto-irin (maizena)
- koilarakada bat (orea egiteko) eta ohiko irina errebozatzeko
- ✓ Arto-krispetak (azukre gehigarririk gabe)
- ✓ Gatz eta piperbeltz apur bat



PAUSOAK

- 1.- Bi ogi xerrak esnetan busti (ez gehiegi). Eskuekin desegin pasta egin arte.
- 2.- Oilaskoa arrautza, ogia, maizena eta gatz eta piperbeltz apur batekin nahastuko dugu eskuekin. Irinez betetako plater batean bota masa-bolatxoak eta, behin irinetik pasa eta gero, errazago emango diegu forma.
- 3.- Arto-krispetak sartu plastikozko poltsa batean (izozkailurako erabiltzen ditugunak, adibidez) eta eskuekin apurtu pixka bat.
- 4.- Nuggetak arrautzatik pasatu eta ondoren krispetetatik. Laberako paperean edo ontzi batean olio pixkatxo bat igurtzi eta jarri gainean nuggetak. 10 minutuz edukiko ditugu bertan 250 gradutara (5 minutu alde bakoitza) urre kolorea hartu arte.
- 5.- Nahi duzuen saltsarekin lagundu.

TXOKOSAGARRAK



Errezeta honetarako 6 sagar erabiliko ditugu, gorriak edo berdeak, norberaren gustuaren arabera. Lehenik eta behin egurrezko makiltxoak sartuko diogu sagarrari. Urte txokolatea eta jarri plater batean kakahueteak txiki-txiki eginda. Busti sagarrak txokolatean eta, ondoren, kakahueteak itsatsi txokolatearen gainean. Utzi hozten hozkailuan 2 ordu.

✓ Azaroak 26, zapatua

Zapatuko ipuina:
Amatxiren istorioak. Ameli eta xirrikiten jostunek.
18:00etan umeen liburutegian.



XIV. Txistorraren Eguna. Kilometro bateko txistorra prestatu eta salgai jarriko da. Horrez gain, kirol-erakustaldiak, musika, jokoak...

✓ Azaroak 27, domeka

XXIV. Bakailao txapelketa.
11:00etatik aurrera Untzagan.



San Andres Bertso Jaialdia.
18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian.



✓ Azaroak 29, martitzena

Dantzaldia Luhartz taldearekin. 18:30-21:00 Untzagan.

✓ Azaroak 30, eguaztena

09:30etik aurrera **San Andres Azoka.** Ganadu Erakusketa Ego Gainen.



12:00etan **Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa** bikoteka. **Trikitilarien kalejira.**

12:30ean **Plazara Dantzara** Erromeria Kezka Dantza taldearekin.



13:00etan azoka, pintxo eta kartel lehiaketetako sari banaketa.

ARIES

Ikasketak: Ortografia zaindu! *Maitasuna:* Datozen egunotan izugarri egongo zara, aprobetxatu! *Asteko eguna:* Osteguna.

TAURUS

Ikasketak: Ze ondo irakurtzen duzun! Jarraitu horrela. *Maitasuna:* Zeini jartzen dizkiozu begitxo horiek? Eee? *Asteko eguna:* Asteazkena.

GEMINIS

Ikasketak: Matematikan zoragarri, baina arreta gehiago jarri ingelesean. *Maitasuna:* Familiarekin egun politak biziko dituzu. *Asteko eguna:* Ostirala.

CANCER

Ikasketak: Azterketa duzula ez ahaztu, mesedez! *Maitasuna:* Aspaldiko lagun baten deia jasoko duzu, umm... *Asteko eguna:* Zapatua.

LEO

Ikasketak: Irakasleak zenbat aldiz errepikatu behar dizkizu gauzak? Adi egon. *Maitasuna:* Lagunen arteko maitasuna baino gauza hobeagorik! *Asteko eguna:* Asteazkena.

VIRGO

Ikasketak: Langile zabilta eta igartzen da, zorianak! *Maitasuna:* Maitagarria zara benetan eh? Segi horrela! *Asteko eguna:* Ostirala.!

LIBRA

Ikasketak: Gehiago irakurri beharko zenuke, ondo etorriko zaizu. *Maitasuna:* Zergatik gorritzen zara horrenbeste? Zeinek du errua? *Asteko eguna:* Domeka.

SCORPIUS

Ikasketak: Etxekolanak egiten txintxo zabilta, ooso ondo! *Maitasuna:* Lagunak zaintzen dituzunez, lagun pila bat izango duzu. *Asteko eguna:* Zapatua.

SAGITARIUS

Ikasketak: Etxekolanak horixe dira, ETXEAN EGITEKO LANAK. *Maitasuna:* Ezusteko bat jasoko duzu, adi egon. *Asteko eguna:* Ostirala.

CAPRICORNIUS

Ikasketak: Txirula gehiago praktikatu beharko zenuke. *Maitasuna:* Aprobetxatu egun hauek familiakoekin jolasteko. *Asteko eguna:* Astelehena.

ACUARIUS

Ikasketak: Liburutegira joan, liburu mordoxka bat dago-eta. *Maitasuna:* Tximeletak sabelean... maitasuna ote da?? *Asteko eguna:* Asteartea.


PISCIS

Ikasketak: Gelan leihotik begira? Hobe zenuke arbelera begiratzea. *Maitasuna:* Gauzak hitz egiten konpontzen dira, badakizu. *Asteko eguna:* Osteguna.




BIDEGORRIKO FESTA (8 urtetik aurrera)

Erramunek, gelako tutoreak, Nekaneri lan bat egitea eskatu dio, lan berezi eta delikatu bat: Bidegorriko festan zer gertatu zen aztertzea. Hori dela eta, Nekaneri ikerlari finaren lana egitea egokitu zaio: ikaskideek gertatutakoaren berri emango diote, bakoitzak bere erara, eta Nekanek benetako egiazen mataza azaleratu beharko du.




KARAKOLAREN BARRUAN (10 urtetik aurrera)

Aurkikuntza handia izan zen Ikerrentzat amonaren logelan aurkitu zuen itsas karakola hura, urrutiko eta hurbileko hotsen gordetzailea. Ipuin honetan argi ikusten den bezala, izugarria da pertsonok dugun komunikatzeko beharra, eta batez ere gure sendikoekin. Bizitzako gertakizun batzuk tarteko, Ikerrek inork baino biziago sentitzen du behar hori.




LESTERREN LOGIKA (12 urtetik aurrera)

Lesterrek logika oso arrazoizkoa du, baina batzuetan ez da erraza baten logika besteei ulertaraztea. Lester, izan ere, mutiko serio bat da, nahiz eta umore handia izan, eta hamar urte betetzeko amorratzen dago, hamar urterekin ume bat gazte serioa bilaka litekeleelako, eta denek serio har dezaten aukera gehiago dituelako.




TONINO (6 urtetik aurrera)

Pinguino honek Tonino du izena: jaka iluna, ipurdi gizona, moko laranja, begi pare beltza eta ibilera traketsa. Toninori aspergarria zaio bere ingurua, ez du maite hango bizimodua: beti Polo triste izoztuan irrist egiteko arriskuan. Toninori bost axola besteen esanak, zer dioten ondokoek, eta zer dioten amak. Basamortuarekin amesten du eta inork ezingo dio burutik kendu.



BALOIAK ARBOLETAN (8 urtetik aurrera)

Zergatik dago eskolako ate beltza beti itxita? Bai, bai, idazkaritza aurrean dagoena. Behin Jonek irekita ikusi zuen eta, haren atzean, eskailera batzuk aurkitu zituen. Eskailerak jaisten ari zela, irristatu, erori eta baso berezi batean amaitu zuen. Baso hartako arbolen adarretan baloiak zeuden zintzilik!?



BERBONTZI (10 urtetik aurrera)

Berbontzi liburujale bat da. Eta, liburujale guztiei gertatzen zaien bezala, tinta eta papera dira bere mokadurik gustukoena. Arazo bakarra honako hau da: Berbontzik, noizbehinka, irakurri berri dituen istorioak ahoko zulutik kanpora botatzen dituela burbuila grisen itxuran, eta bere inguru osoa fantasiaz betetzen da.



Danimarkan txerri kopurua pertsonen bikoitza da.




Armiarmak, zortzi begi izan arren, miopeak dira, urrutira ez dute ondo ikusten.



Kolibriek asko bidaiatzen dute. Uda Alaskan pasatzen dute eta negua Mexikon. Joan-etorriko bidaiek 9.600 kilometro ditu!



Jirafa da munduko animaliarik garaiena. Lepo luze horrekin eraikin baten bigarren solairuan gertatzen dena ikus dezake.



Ipar Amerika eta Europa bata bestetik 4 cm aldentzen dira urtean.



Munduan 500 sumendi inguru daude aktibo. Horietako %20 itsaso azpian daude.



Munduko kalabazarik pisutsuenak 681,3 kg pisatzen zuen. Halloween-eko kalabaza erraldoi bat egiteko erabili zuten.



Marrazo erromesak 40 kotxek adina pisatzen du. Munduko arrainik handienetakoa da.



Erromatarren Inperioa oso handia zen. Punta batetik bestera joateko 100 bat egun behar ziren. Bide osoak 5.000 kilometro neurtzen zuen.



Egunero gure gorputzeko 14 gr azal siku erortzen zaigu. Bizitza osoan 380 kg.



Hamar urterekin 13.000 amets izan ditugu. Baina gehienak ez ditugu gogoratzen. Pentsa bizitza osoan zenbat amets egiten dugun!



Giza gorputzak 650 gihar ditu eta horiei esker mugitzen gra.

ALINA BITXIA



Bazen behin Alina izeneko neska bat. Herri txiki batean bizi zen bere aita Tadeorekin. Oso pozik bizi ziren euren herrian. Aita zientifikoa zen eta makina asko egiten zituen. Alina 5. mailan zegoen.

Egun batean esan zion Alinak aitari:

- Aita, zergatik jausten dira hostoak zuhaitzetatik?
- Orain ikusiko duzu, Alina- esan zion aitak.

Parkera joan ziren eta han zuhaitz pila bat zeuden.

- Ikusi lupatik, Alina.
- Hara! Ipotxak dira!
- Bai, ipotxek kentzen dituzte hostoak, udazkena eta negua laster etorriko dira-eta.
- Ongi! Eta kandela metxeroarekin, nola pizten da?
- Goazen etxera eta han erakutsiko dizut nola.

Bidean Alina oso urduri zegoen ez zekielako zer esango zion bere aitak. Sukaldean sartu zirenean aitak esan zion:



- Bale, hartu kandela bat, Alina.
- Tori, aita.
- Ikusi lupatik.
- Ez da posible! Maitagarriak dira!
- Oso ondo, Alina. Beste galderarik?
- Bai. Ez dut gogoratzen ondo hodeiak zerez eginda dauden...

Orduan aitak gogoratu zuen makina bat zeukala garajea, gaztea zenean egin zuena. Etxera joan ziren makina hartzeko. Harrituta geratu zen Alina:

- Zoragarria da!!!

Koloretako makina zen. Metalez, plastikoz... mota desberdinetako materialez eginda zegoen. Makinan sartu ziren. Soinu arraroa entzun zuten eta, konturatu zenean, hodei gainean zebilen. Atera aurretik jantzi espezial batzuk jantzi zituzten kanpoan hotz handia zegoelako. Orduan, esprai magiko bat bota zuen aitak hodeietan, hodeien gainean ibiltzeko. Arratsalde osoa pasatu zuten hodeien gainean eta hodei-gerrara jolasten. Jaitsi zirenean, Alinak esan zuen:

- Nire egunik onena izan da!!!

Naira

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



zu margolari!